

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ZUMELTZUKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

#### Lurzatiak lagatzea 10.094 ehiza esparrua, Zaldiran izenekoa, berritzeko

Ariñiz, Eskibel, Gometxa, Subilla Gasteiz eta Zumeltzuko kontzejuek erabaki dute onestea eta lagatzea lurzatiak VI-10.094 ehiza esparrua, Zaldiran izenekoa, berritzeko.

“Zaldiran” izeneko VI-10094 ehiza esparrua berritzean sartuta egongo direnez horren mugen barruan dauden lurzati pribatu zein publiko guztiak, Ariñiz, Eskibel, Gometxa, Subilla Gasteiz eta Zumeltzuko kontzejuak eragindako lurren jabeen baimenak biltzen ari dira, Euskadiko ehizaren martxoaren 17ko 2/2011 Legeak 21. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Lurzati publikoen artean onura publiko mendi (OPM) hauek sartzen dira:

- OPM, 271 zk. ZALDIARAN, Ariñizko kontzejuarena.
- OPM, 272 zk. ZONZARRETA, Ariñizko kontzejuarena.
- OPM, 685 zk. ATXURDIN, Eskibelgo eta Gometxako kontzejuena.
- OPM, 691 zk. ARANBAIZA, Gometxako kontzejuarena.
- OPM, 707 zk. EL ENCINAL, Gometxako kontzejuarena.
- OPM, 708 zk. LA LADERA, Gometxako kontzejuarena.
- OPM, 717 zk. MONTE ABAJO, Subilla Gasteizko kontzejuarena.
- OPM, 717 zk. MONTE DE ZUMELTZU, Zumeltzuko kontzejuarena.
- OPM, 723 zk. PAGADUIA, Gometxako kontzejuarena.
- OPM, 726 zk. REKALDE, Eskibelgo eta Gometxako kontzejuena.

OPM horien kartografia espedientean jasota dago. Espediente hori kontzejuan dago interesdunen esku.

Horretarako, iritziko da ezen iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik hasita 15 egun balioduneko epean horren kontrako idazkirik aurkezten ez dutenek baimen esangabea ematen dutela, eta ulertuko da kontzeju horiek baimena daukatela ezarritako epean kontra agertzen ez direnen lurzati eta finka guztiak sartzeko ehiza esparru horretan. Espedientea interesdunen esku dago.

Guztiak jakin dezaten eta dagozkion ondorioetarako argitaratzen da.

Zumeltzu, 2020ko maiatzaren 21a

*Lehendakaria*

**JUAN MIGUEL SERRANO PORRAS**